

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakaria Nafarroako Nekazaritzako Kooperatiben Batasuneko lehendakariarekin bildu da

Kooperatiben berregituratzearen lehen planak izandako emaitzak baloratu dituzte, 21 erakundek parte hartu duten hamahiru bat-egite prozesurekin amaitu dena

Jueves, 15 de marzo de 2012

Nafarroako Gobernuaren Lehendakari Yolanda Barcina Nekazaritzako Kooperatiben Batasuneko (UCAN) lehendakari José Mari Martínez Díaz-ekin bildu da.

Bileran Nafarroako Nekazaritzako Kooperatibak 2006-2011 berregituratzeko Jarduera Planaren emaitza baloratu dute, eta beharrezkotzat jo dute pausoak ematea sektorearen berregituratzea amaituko duen

bigarren plan bat abian jartzeko. Bileran izan dira ere, Landa Garapen, Industria, enplegu eta Ingurumeneko kontseilari Lourdes Goicoechea; Landa Garapeneko eta Enpresa eta Berrikuntzako zuzendari nagusi Juan Pablo Rebolé eta Jorge San Miguel, bai eta UCANeko gerente Patxi Vera ere.

Lehen planean hamahiru bat-egite prozesu osatu dira, eta bertan nekazaritzako 21 kooperatibak parte hartu dute; horren ondorioz, dimentsio handiagoko zortzi erakunde berri sortu dira.

Gainera, 62 erakunderen artean kooperatiben arteko hamaika akordio egin dira; eraginkortasun energetikoko proiektu bat Iberdrolarekin lankidetzan eta tartean 70 kooperatiba izanik; 34 erakunderi mesede egin dien informatika zentralizatzeko prebentzioko proiektuak eta 42 kooperatibekin laneko arriskuen prebentzioko proiektuak Nafarroako Prebentzioarekin eta Nekazaritzako Erkidetutako Prebentzioko Zerbitzuarekin (SPMA) lankidetzan.

Yolanda Barcina Lehendakaria eta UCANeko lehendakari Patxi Vera bat etorri dira azken bosturtekoan izandako prozesua ona izan dela baloratzeko orduan. Gainera, bat etorri dira ere esatean, ezinbestekoa dela elikagai-nekazaritzako balioaren kateko oreka hobetzea, ekoizleen



Ezkerretik eskuinera: Patxi Vera, gerentea, eta Jose Mari Martínez lehendakaria, Lehendakariarekin, Goicoechea kontseilariarekin eta Landa Garapeneko zuzendari nagusiarekin.

integrazio handiagoa erraztuz.

Arrazoi horrengatik, Nafarroako Gobernuak prozesu bati ekingo dio berregituratzeko bigarren plan bat abian jartzeko eta lehiakortasuna hobetzeko (Nafarroako Kooperatiben Integrazio Plana), eta bertan elikagai-nekazaritzakoak ez diren kooperatiben beste sektore batzuk ere sartu ahal izango dute. Zer neurri abian jarri behar diren aztertzeko, Nafarroako Gobernuak Jarraipeneko Batzorde Misto bat abian jarriko du, eta hura osatuko dute: Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuko kideek eta UCANeko kideek, nahiz eta kooperatibisten beste erakunde batzuentzat ere irekita izango den.

Gaur egun, elikagai-nekazaritzako 165 kooperatibista dauden Nafarroan, eta urtean 800 milioi bat euro fakturatzen dute. 20.000 bazkide batzen dituzte eta Komunitatean 1.700 lanpostu zuzen sortzen dute.